

# DIRU-ITURRIAK

- **Gastuak →**


Baliabideak	Kantitatea	Prezio estimatua unitate	Totala
Tresna	100	12€	1.200€
Lepokoa	100	30€	3.000€
Kutxak	100	0'54 €/und	54€
Garraioidea	100	2'90 €/und	290 €
<b>Totala</b>		45,44 €/und	4.544 €

- **Empresa aurrera eramateko laguntzak →**

Geure empresa aurrera eramateko gure herriari, probintziari eta herrialdeari laguntzak eskatuko diegu diru iturriak lortzeko. Hiru diru-iturri aurkitu ditugu eta hauetatik Barakaldoko udaletxearen laguntzak eta Bizkaiko foru aldundia hautatuko ditugu, gure ustez eskuragarriagoa delako gure herriko eta probintziako diru laguntzak hartzea herrialdearena baino. Hala nola hautatuko dugu Espainiako laguntzara diru-iturriak handiagoak direlako.

Lortuko dugun diruarekin laguntzen bidez gure enpresa martxan jarriko dugu, lepokoak saltzean irabazitako diruaren zati bat laguntzak bueltatzeko izango da eta bestea guretzat, beraz enpresaren aurrerapena posiblea izango da gobernuaren laguntzei esker.

Horregatik hiru laguntzen azalpena eta beraien onurak aurkestuko ditugu:



## 1. Bizkaia

<b>Webgunea</b>	<a href="https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/11726?Tem_Plid=7991778">https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/11726?Tem_Plid=7991778</a>
-----------------	---

Langileen, enpresa dagoen lonjaren alokairua eta zeharkako gastuak ordaintzeko dira diru-laguntzak. Kreditua gehienez 7.500 eurokoa da entitate bakoitzeko.

Pertsona autonomoak Bizkaiko biztanleak direnentzako zuzenduta daude, baina hurrengo baldintzak bete behar dute:

Langile autonomoen erregimen berezian egotea eta aurreko urteetan irabazitako dirua 20.000 euro baino txikiagoak izatea.

### 1.1 Mikrokredituen ezaugarriak

Berme gabeko mailegua, ez du ez komisiorik ez interesik. Bizkaiko Diputazio Foralak ematen du krisiari aurre egiteko. Mailegua 5 urtetan bueltatu behar da 16 hiruhileko kuoten bitartez, bakoitza emandako kantitatearen %6'25-ekoa izaten. Itzultzearen eza ezartzen da urte bat.

Pertsona autonomoak, profesionalak eta bizkaiko biztanleak direnak proposamen bakar bat bidali ahal dute.

## 2. Espainia

<b>Webgunea</b>	<a href="#">El Gobierno aprueba 98.5 M€ para financiar a pymes, empresas tecnológicas y jóvenes emprendedores</a>
-----------------	---

Gazte ekintzaileentzarako zuzenduta daude, 25.000 eta 75.000 euro artean ematen da, 40 urte baino gutxiago gazteen enpresa proiektuak aurrera eramatea du helburu.

Lineak gehienez 7 urteko epe-muga izango du, eta gehienez 5 urteko gabealdia. Interes-tasa enpresaren emaitzen arabera finkatuko da, gutxieneko eta gehieneko batekin.

2023rako onartutako hornidura kontuan hartu gabe, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak ENISARI finantzaketa-lerro horretarako egindako hornidura 244,3 milioi eurokoa da.

2023rako ezarritako aurrekontu-hornidurarekin, kalkulatzen da 105 mailegu inguru onartuko direla gazteek sustatutako enpresen alde, guztiak eratu berriak edo duela gutxi eraturakoak izango dira (bi urte baino gutxiago).

Proiektuak Espainian kokatutak egon behar dira, edozein sektorekoa izaten, finantzia eta higiezin sektorei izan ezik.

### 3. Barakaldoko udaletxea

<b>Webgunea</b>	<a href="#">Inguralde ofrece 24 ayudas para poner en marcha nuevos negocios</a>
-----------------	---

Laguntzak zuzenduta daude lana ez duten pertsoneri eta haien enpresa propioa sortu nahi dutenentzako, batez ere emakume eta gazteentzako.

Barakaldoko herritarrek eskatu ahal dituzte laguntza hauek Inguralden. Euskal Enplegu Zerbitzuak 24 laguntza eman dizkio Barakaldori, guztira 28.750 euro dira.

Bi laguntza mota daude. Lehenengoa zuzenduta dago edozein ideia enpresariala bultzatzeko partaide bakoitza hiru hilabeteko aholkularitza izango dute plana aurrera eramateko eta gehienez 1.000 euroko laguntza.

Bigarren laguntza da plana antolatuta duten enpresentzako eta bakarrik laguntza behar dutela hasteko, hauek gehienez 1.500 eurokoa izango da.

Bi kasutan laguntza ekonomikoa %15-ean handituko zen eskatzailea 18 eta 24 (Lehenengo kasuan=1.150 Bigarrena=1.725) urte artean badu eta %15-eko beste gehikuntza izango zuen emakumea bada (Lehenengo kasuan=1.300 Bigarrena=1.950).